

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2019rako aurrekontuaren exekuzio-arauaren aldaketari hasierako onarpena ematea

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 15ean egindako ez ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea 2019ko ekitaldirako Aurrekontuaren Exekuzio-Arauaren aldaketari, udalbatza berriaren ordainsarien eta arduraldien onarpenaren ondorio gisa.

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan finkatutakoarekin bat etorritik, aipatutako espedientea jendurrean ikusgai izango da hamabost laneguneko epean, ALHAOn argitaratzen den hurrengo lanegunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea ikus dezakete eta Osoko Bilkuran erreklamazioak aurkez ditzakete.

Aldaketa behin betiko onartutzat emango da, epe horretan erreklamaziorik ez balego.

Publiko egiten da, zabalkunde orokorra izan dezan eta dagokion ondorioetarako.

Ondategin, 2019ko uztailaren 16an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA